

2010eko apirilaren 24an egingo dute Nazioarteko XV. Sprint Duatloia

Kirola » Gaur egun mundu mailako, Europako eta Espainiako txapeldunak direnak ekarri gura dituzte antolatzaileek.

OIHANA CABELLO

2010eko apirilaren 24an egingo dute Gernika-Lumoko XV. Sprint Duatloia. Urdaitri triatloi taldea arduratzen da lasterketa hori antolteaz, eta adierazi dutenez, mundu mailako, Europako eta Espainiako txapeldunak ekarri gura dituzte datorren urteko zita horretara.

Emakumeen mailan Vendula Frintova txekiarra izan zen nagusi iazko Gernika-Lumoko Sprint Duatloian, eta bera da gaur egun mundu mailako txapelduna. Gizonezkoetan, aldiz, Jarrod Shoemaker da mundu mailako txapelduna.

Europa mailan, Andreas Sutz suitzarra eta Catriona Morrison eskoziarra dira txapeldun tituluak dutenak eta, Espainia mailan, Inmaculada Pereiro euskal herritarra eta Victor Manuel del Corral katalana dira txapeldunak. Horiek denak ekartzea zaila izango dela aitortu dute antolatzaileek, «gainera, atleta asko jarri dira gurekin harremanetan Gernikako duatloian parte hartu gura dutela esateko». Hala ere, aurrekontuak zenbaterako ematen duen ikusi beharko dute antolatzaileek.

Gernikako txapeldunak

Izan ere, Urdaitrikoek atleta konkretu batzuk ekartzeko asmoa agertu dute, «Gernikan egotea gustatuko litzazigukeenak. Baina,



Aurtengo irabazle Vendula Frintova ekarri gura dute 2010ean ere. MAITE ORUE

ikusi beharko da etorri ahal duten edo ez».

Hain zuzen, 2009an Gernika-Lumoko Sprint duatloian nagusi izan zen Bart Aernouts belgiarrak eta Sergio Silva portugaldarrak 2010ean ere parte har dezaten asmoa dutek antolatzaileek. Horiek biek bakarrik ez, 2009ko edizioan, gizonezkoen mailan bigarren eta hirugarren sailkatu ziren Laurent

Gallinier eta Nicolas Capoferry frantziarrak ere berriz Gernikan izatea da Urdaitriren nahia.

Baugh eta Attard, ia ziur

Duatloiren XV. edizioan ia ziur egongo direnak Raf Baugh eta James Attard australiarrak dira, antolatzaileek jakinarazi dutenez. «Bi horiek ekartzea errazagoa da», azaldu dute.